

EZKIO-ITSASO / Joxemari Carrere kontu kontari aritu zen Ezkio-Itsasoko liburutegian

EZKIO-ITSASO. DV. Ostiralean arratsaldeko 6rak aldera Joxemari Carrere ipuinen kontaketaekin hasi zen Ezkio-Itsasoko liburutegian, non hamabost bizilagun inguru bildu ziren bere kontakizunak entzuteko.

Normalean liburutegia beteta egoten da horrelako ekitaldiak daudenean, baina eguraldi txarra eta aste honetan datorren zubia izan zirela eta, oraingoan hamabost pertsona inguru bilu ziren kontakizunak entzuteko intentzioarekin.

Hasi eta adi-adi egon ziren bertan bildutako ume guztiak zer kontatu behar zuen entzuteko, eta noski, ahal zuten bakoitzean ere parte hartzen zuten. Barreak eta algarak izan ziren nagusi eta oso gustora ibili ziren ipuinak entzuten. Horrela, ipuinen artean arratsalde polita igaro zuten txikiek, eta hain txikiak ez direnak ere oso gustora ibili ziren. Amaitzerakoan noski, Joxemari Carrere-ren saioa txalo artean agurtu zuten.

Sorpresa eta guzti

Hau bukatu bezain laster eta liburutegian ekitaldi bat antolatzen den bakoitzean gertatzen den bezala, sorpresatxo bat jaso zuten bertan zeuden txikiek.

Horrela, hilaran jarri ziren bertan zeuden txiki guztiak eta piruleta bana eman zieten. Orduan bai poz-pozik ipuinak entzun ondoren eta piruleta ahoan zutelarik etxerantz abiatu ziren.